ALTZAKO ERDI AROA IZENEZ IZEN

Iñigo LANDA IJURKO
Juan Carlos ETXEBESTE GONZALEZ

En el presente artículo, titulado "La Edad Media de Altza, a través de sus topónimos", sus autores hacen un viaje por la documentación medieval con referencias directas a topónimos altzatarras. Las diferentes alusiones a los seles de Irurdita, Anaizoz y Albizungo a partir del siglo XI, así como la aparición de los nombres de "Alça et Soroeta" en el siglo XII, y el de Artiga de Alza más tarde, nos abren el camino a un mayor y mejor conocimiento de los altzatarras y sus modos de vida durante la Edad Media. Altza y sus tierras, por su situación geográfica, fue un lugar abierto a los influjos exteriores que transformaron Gipuzkoa durante la Edad Media y, al mismo tiempo, según se deduce de la documentación, fue también un espacio utilizado para sucesivas delimitaciones del territorio.

"Bere baitan batere hertsirik ez zegoen Euskaldun Populu bat, iraganbide batean kokaturik zegoelako, Europa eta Galia, Iberiar Penintsulari lotzen dituen inbasiobide handian hain zuzen eta beraz bilakaera guziei irekirik zegoen populu bat, atzerrietatik zetozen aurrerapenak hartzeko gai zena eta baita ere, bere gisara, bere kulturaren arabera egokitzeko oraindik gaiago zena," (Jean HARITSCHELHAR, Jacques BLOT-en "Euskal Herria, Mendiak eta Historiaurrea" liburuaren aitzin-solasetik"

Altzako historian badira bi momentu, berebiziko garrantzia izan dutenak bere bizitza eta izaeran. Bata garaikidea dugu, egungo edozein pertsona helduk begi bistan antzeman ahal izan

duena, industrializazioarena hain zuzen. Mendeetan, gure bideetan ibiltzen ziren bidaiariek eta bestelako idazleek, Altza deskribatzen zutenean, baserri giroa nabarmendu ohi zuten. Eta ez zebiltzaten batere oker honela izan baita mende honen hasiera arte. Industrializazioa, lehenengo, Herreran nabarmendu zen, Pasaiako portuaren eraginez, eta ondoren, berrogeita hamargarren urtetik aurrera gainontzeko Altzara zabaldu zen, erabateko itxuraldaketaren ondorioak nonnahi ikus ditzakegularik.

Bigarren momentu klabea, eta aurrenekoa denboran, orain dela mila urte gutxi gorabehera gertatu zen, Altzaren izena lehen aldiz aipatzen den momentuaren inguruan hain zuzen. Erdi Aroan artzantzan oinarritutako gizarte eta ekonomia batetik nekazaritzan oinarrituko zen ekonomia eta gizartera pasatu zen momentua, alegia. Jakina denez, aldaketak ez dira egun batean gertatzen eta ez dira erabatekoak izaten. Artzantza munduak, nekez baina, gaur egun ere bizirik dirau gure artean, lagun gutxiren ogibide eta garai berrietara egokiturik, uda garaia barnekaldeko mendizerren inguruetan igaro ondoren negua datorrenean bertako kostaldera etortzen. Egungo altzatarrok ikusi ahal izaten dugu aldian behin zenbait artalde gure inguruko belardietan bazkatzen, mende askotako lekuko dugularik. Alabaina, artzantzak hirugarren mailako garrantzia izan du Altzako ekonomian, eta honen arrazoia XI. mendetik aurrera gertatutakoan bilatu behar dugu, Altza izena sortzearekin batera mundu berri bat nagusituko baita gure inguruetan: lurra ustiatzeko modu berriak, jende berria, pentsakera eta bizitza antolatzeko modu berriak.

Gure herriko Erdi Aroa interesgarria bezain iluna da, bi arrazoi nagusiengatik, alde batetik, garai honetako testuak oso eskasak direlako, eta bestetik, Donostiako Artxibategi Historikoa 1813. urtean eta sute baten ondorioz erabat suntsiturik geratu zelako. Kontuan izan behar dugu Altzak, denboraldi labur batzuetan izan ezik, ez duela artxibategi propiorik izan eta beraz, Donostiako artxibategiarekin batera, Altzarekin loturik egon zitezkeen dokumentuak ere betirako desagertu egin zirela sute hartan.

Beraz, Erdi Aroan Altzan gertatutakoaren berri izateko gure herriaren aipamen zuzenak dituzten dokumentu bakan horiek aztertu ezezik, beste informazio iturriak ere bilatu behar ditugu, hala nola, toponimoak, abizenak, edota inguruko herrietan produzitutako testuak eta bestelako datuak.

XI. mendetik XV. mendera bitartean Altzarekin lotutako testuak hauexek ditugu:

– Gartzia IV. Ramirez, Iruñeko erregeak 1141. urtean Iruñeko Santa Maria Elizari "Iheldo Bizchaya, Huramea, Alça, Soroeta, ..." inguruetan duen guztia eskeintzen dio.

– 1178. urtearen inguruan Antso Jakitunak, Gartzia Ramirezek Iruñeko elizari egindako eskeintza berbaieztatzen du. Bertan zera zehazten du: "Alza et Soroetha cum tota sua pertinentia et cum totas suas pescarias".

– 1197. urte inguruan egindako faltsifikazioa, non Antso III. Nagusiak, Iruñeko erregea, eta Maiora erreginak Leire Monastegiari ondoko propietateak eskeintzen dizkioten: San Sebastian Monastegia eta bere parrokia, Izurun hiria, bere Santa Maria eta San Bizente parrokiekin eta Irurdita, Anaizoz, Albizungo, Ancieta, Zurzaiate, Bagozu Larraburu eta Loizta "cubilare"-ekin. Donazio hau 1014. urtean izan omen zen.

– Altzako San Martzial parrokiaren fundazioaren inguruan produzitutako dokumentuak, 1390. urtetik 1396. urte bitartean.

– 1397. urtean, Getarian bildutako Batzar Nagusian egindako "Gipuzkoako Anaiartearen Ordenantzen Koadernoa"-n, 56. atalean, probintziaren defentsarako deialdira erantzuteko garaian Donostiako biztanleek, -"...los que moran dentro en el cuerpo de la villa en Alça o en Ygueldo Ybieta dentro..."-, daukaten pribilegioa aipatzen da. Urte batzu pasata, 1463. urtean, pribilegio hau berriro aipatuko da "Gipuzkoako Anaiartearen Ordenantzen Koaderno Berria"- n, LVII Tituluan.

– 1409. eta 1425. urteetan Errenteria eta Murgiako jauregierriaren arteko mugaketetan 'Chripres", "Alviçungo" eta "Artiga" aipatzen dira.

– 1456. urtean, Pasaiako portuaren jabetza dela-ta, Donostia eta Errenteriaren arteko gatazkari irtenbidea bilatzeko Errenteriak ordezkari batzu izendatzen ditu. Dokumentu honetan "Molinao", "Abiçango", eta "Alça" aipatzen dira.

Aipatutako testuez gain, gorago esan dugun bezala, toponimia eta batez ere etxe izenak dira beste informazio iturri garrantzitsu bat. Gure artean bizirik diraute garai hartako izen askok, batzuk jatorrizko itxura gordeaz (Casanao, adibidez), gehienak eraldatuak bai euskal itxura hartuez (Gomistegi=Gomis, gaskoi abizena + -tegi, euskal atzizkia), bai aldaketa fonetikoen eraginez itxura erabat berria hartuaz (Ernabiro = Arnaobidao = Arnau(t), pertsona izena + Vidau, gaskoieraz Vidal abizena, Koldo Mitxelenaren esanetan). Izen horiei esker antzeman dezakegu zein jende bizi zen hemen, batzutan zertan jarduten zuten, edota zein jatorri zeukaten, eta nondik nora ibili ziren. Ez dugu ahaztu behar, mende hauetan batez ere, abizenak pertsona zein etxekoa edo zein herritakoa zen adierazten zuela eta, beraz, oso baliagarria da abizenen azterketa gizarte hori ezagutzeko. Leku izenak, bestalde, bertan bizi den biztanleek sortzen dituzte kasu gehienetan, eta horrek paisaia eta erliebearen ezaugarriak ezagutarazten dizkigu. Zenbaitetan deskribitu ezezik, inguru horren eboluzioaren berri ere ematen digu. Konkretuki, gure herriaren izena pixka bat gainetik aztertzen badugu ikusten dugu nola hasiera batez "Alça" idazkeraz azaltzen zaigun, hau da, arbola ezagun baten euskal izenez izendatuta. Urte batzu pasata, gure herria "Artiga de Alza" izenarekin azalduko da dokumentuetan. Aldaketa esanguratsua dudarik gabe, batere kapritxosoa, eta ondoko lerroetan zabalago eta sakonago aztertzen saiatuko garena.

IRURDITA, ANAIZOZ, ALBIZUNGO

Iruñeko erregea zen Antso III.a Gartzes Nagusiak Leire monastegiari lurralde zabal bat eman zion 1014. urtean. Nahiz eta notizi hau 1197. urteko dokumentu faltsu batean azaldu badirudi ziurtzat eman daitekela bertan esaten dena. Erregeak Leireri emandako lurraldea mugatzeko idatzian "cubilare" zerrenda bat aipatzen da:

> *"...cum illo cubilare de Irurdita usque ad Anaizos, cum illo cubilare de Anaizos usque Albizungo, cum illo cubilare de Albizungo usque ...".*

Zerrendak jarraitzen du baina guri aipamen hauek interesatzen zaizkigu zeren toponimo hauek, -Ricardo Izaguirre historialariak orain dela berrogeita hamar urte aztertu zuenaren arabera, eta inork zalantzan jarri ez duena-, Altzako inguruetan aurkitzen dira. Haren ustez dokumentu horretan aipatzen diren "cubilare" guztiak borobil bat osatzen dute dokumentu bertan aipatzen den Izurun hiriaren inguruan, hau da, gaurregungo Donostiako Alde Zaharraren inguruan, Santa Maria eta San Bizente elizak barne. Elena Barrena historialariak ere ideia honetan sakontzen du -berak bi borobil ikusten ditu, bat txikiagoa San Sebastian monastegiaren

inguruan, eta beste bat Izurun hiriaren inguruan hiru kilometroko erradioa daukana-. Gure iritziz borobilaren ustea zalantzan jarri behar dugu, geroago azalduko dugun legez.

"Cubilare" hitza hitz goi-aragoiarra da eta sarobea, saroia edo kortaren esanahia dauka. Sarobeak abereak gauean edo ekaitzaldietan babesten ziren zuhaiztiak edo basoak dira. Beraz, hitz hau artzantzarekin erabat loturik dago eta abere taldeek aldiro larrez aldatu behar izaten dutenez sarobe erabiltzaileek ez dituzte sarobeak era egonkor batez erabiltzen, aldian behin baizik. Sarobe hauetako asko denboraren poderioz eta zilegimendien pribatizazio prozesu baten barnean baserri bihurtuko dira, hau da, nekazaritzarekin eta abelkuntza egonkorrarekin loturiko lursailak alegia. Baina XI. mendean oraindik ezin dugu honelakorik ikusi eta sarobea abelzaintzaren zerbitzura egongo da osoki. Sarobe hauek Aralar eta goimendietako larreak kostaldearekin lotzen zituen artzai nomaden bideekin erlazionaturik zeuden erabat.

Gaurregun lurralde bat mugatu nahi dugunean puntu jakin batzu zehazten ditugu eta bertan mugarriak jartzen dira. Mugatzeko modu hau ez da nagusituko gure artean XIV. eta XV. mendera arte. Bitartean, aurreko mendeetan, espazioaren kontrola mugarriz baino pertsonen bitartez egiten zen menpekotasuna erabiliaz eta, honela, lagun batek bere borondatez ala beharturik jauntxoz aldatzen zuenean, berarekin batera kontrolatzen zuen lur-eremua jauntxo berriaren menpera pasatzen zen ere. Hau aldatzen joango da poliki- poliki Erdi Aro Garaiatik XV. mendera bitartean eta aldaketa prozesu honen adibidea aztertzen ari garen Iruñeko erregearen eskeintza hau daukagu.

Dokumentuetan toponimoak aipatzen direnean, ez dugu pentsatu behar puntu bat bakarrik adierazten ari direnik zeren sarobeak, gorago esan bezala, aterpea izateaz gain zuhaiztia ere baitira eta, ondorioz, puntu batean baino zabalgune edo lursail batean pentsatu behar dugu. Sarobeak lursail borobilak dira, 160 metroko erradiodunak gutxi gorabehera. Borobila marrazteko haustarri edo artamugarri izeneko harri bat kokatzen da zentru bezala eta borobilaren ertzean beste lau edo zortzi mugarri orientatuak, bazter-mugarriak, sarobea mugatzeko.

Altzari dagokionari helduz, dokumentuan aipatzen diren hiru sarobeetatik bi badakigu gutxi gorabehera non zeuden kokaturik, Irurdita eta Albizungo hain zuzen, baina hirugarrena berriz, Anaizoz, ezin izan dugu zehaztu nongo izena zen. Anaizoz Altzan zegoela ez daukagu dudarik zeren "cubilare" zerrenda horrek ordena jarraitzen baitu, ekialdetik mendebaldera, eta Anaizoz toponimoa Irurdita eta Albizungoren artean aurkituko dugu, bi horiek Altza barnean daudelarik. Irurdita toponimoa errez identifikatzen da gaurregungo Illurgita toponimoarekin, Mendiolako itsas-bazterrean. "Bahía de Iyurguitaco-zulua" Altza eta Donostiako udalmugapearen 33. mugarriari dagokion izena da (Ikus "Hautsa Kenduz-I", 24. orr.). Hemen garbi ikus dezakegu nola hasiera batean sarobe bat zena eta lurralde bat mugatzeko erabilia izan zena udal-mugapeak zehazteko garaia datorrenean mugarri bihurtuko diren.

Antzekoa gertatuko da Albizungo toponimoarekin. Gaurregun izen hau ez da erabiltzen eta galdua dago, baina ez dokumentuetan. Albizungo Irumugarrieta mugarriari dagokio. Errenteria, Astigarraga eta Altza udalmugapeen topagunea da, 28. zenbakia duen mugarria hain zuzen (Ikus "Hautsa Kenduz-I" 42. orr.). Irumugarrieta zulo batean sartuta dago eta bertan bi erreka elkartzen dira: Alanoko erreka eta Txurdiñeneko erreka. Esan bezala, Albizungo izena erabat galdua dago baina, bestalde, testu zaharretan oso dokumentatuta. Guk behintzat Errenteriako Udal Artxibategiko hiru dokumentutan aurkitu dugu: Albiçungo, 1409. eta 1425. urteetan; Abiçango, 1456. urtean. Errenteria eta Murgiako Jaunak (Astigarraga) 1425. urtean elkarrekin daukaten muga zehazteko idatzi zuten dokumentuan honela esaten du:

"...pusieron el primero mojon de piedra raygado en tierra en el dicho logar llamado Alvizungo, sobre el camino real dende donde esta un arbol sennalado quando la dicha primera pasada se fezo que llama Çumara de partes de iuso del dicho camino de azhia Chripres e dende aiuso fasta los dos arroiuelos que se ajuntan en uno cabo el ero e ala de Bicarayn (gauregun San Markos mendia), el uno de los arroiuelos se desciende del dicho logar de Alviçungo e el otro desiendo de Yerrdo en aiuso e acuden a la oya la del dicho çerro de Bicarayn do se juntan las dichas dos agoas de los dichos dos arroiuelos..." (M.A. Crespo eta besteak, "Fuentes Documentales del País Vasco: Colección Documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo I."; Eusko Ikaskuntza)

Albizungo toponimoa, guk kokatu dugun puntuan behintzat (ikus 1. irudia), R. Izaguirrek jarri zuen lekutik urruti xamar dago eta, batez ere, ez du uzten ikusten Izurun inguruan berak somatutako borobila. E. Barrenak borobil honentzako hiru kilometrotako erradio kalkulatu bazuen Albizungo toponimoaren kasuan ez da betetzen askoz urrutiagoa geratzen baita, –Albizungo Izurundik sei kilometrotara aurkitzen da, gutxi gorabehera–, Ondorioz, dokumentuak "in circuitu" esaten duenean inguruan esan nahi du eta ez borobilean.

Hiru toponimo hauen etimologia beste arazo bat da. Laburki bada ere, toponimo hauen esanahien inguruan dauzkagun argitasunak eta zalantzak azalduko ditugu. Irurdita izenaren etimologia, Izaguirreren ustez, honela osatuta dago: irur(a)+di+(e)ta. "Irura" izenak ibarra esan nahi omen du; -di atzizkiak aniztasuna edo multzoa; -eta atzizkiak leku-izenetan aniztasuna adierazteko erabiltzen bada ere beste zenbait kasutan, Mitxelenak dioenez, pertsona-izenen atzizki bezala azaltzen zaigu. Honek aukera berri bati ateak zabaltzen dizkio, hau da, "Ilurdo" pertsona-izena denez, Irurdita edo Ilurgita norbaiten izenarekin loturik egongo litzateke. Bestalde, Anaizoz toponimoa Izaguirrek honela osatuta ikusten du: an+aiz(e)+o(t)z. "An-" zer den argitzeko ez daki zer esan; "aiz(e)", inguru hauetan haitzik ez dagoenez, haize bezala ulertu behar dugula pentsatzen du: "o(t)z", hotza alegia. Hala ere, guk uste dugu toponimo honen etimologia beste alde batetik bilatu behar dugula. "Anai(a)" Erdi Aroan pertsona-izena bezala erabilia izan zen, honelako izenak emanez: Anay, Anaya, Anaiots, Anaitz, Anayotz (Mitxelenak aipatutakoak). "-oz" atzizkia Nafarroako herri- izenetan sarritan azaltzen da eta beti pertsonen izenekin loturik, nolabait jabetza adieraziz. Itxura honetako toponimoak baskoiena ziren lurraldetan aurki ditzakegu. Azkenik, Albizungo toponimoarekin, aurreko beste biekin bezalako ezbaiaren aurrean aurkitzen gara. Alde batetik, honela osaturik egon daiteke: albi(tz)+zu+ngo. "Albitz" abereek bazkatzeko den belar mota bat da; "-zu" atzizkiak asko esan gura du; "-ngo", nongo galdegaiari erantzuten duen atzizkia. Baina aurreko kasuetan bezala pertsona- izenekin lot dezakegu "Albiz" patronimikoa baita.

Etimologiak puntu honetan utziaz, Leireri egindako Eskeintza bere osotasunean hartuko dugu berriro eta orain arte esandakoa hobeto ulertzeko komenigarria deritzogu dokumentuaren kontestua zein zen pixka bat ezagutzea eta honela ere dokumentu honen garrantziaz jabetuko gara. Europan garai gogorrenak bukatzen ari ziren eta bai ekonomia baita bake giroa ere berpizten eta hedatzen ari ziren Europa osoan. Musulmandarrekiko muga gero eta urrunago egotea bideratzen ari zen merkataritzaren garapena, batipat Europako hegoalde eta iparraldearen artean, eta honekin batera, urrutirako merkataritzak behar dituen azpiegiturak sortzea: hiriak, portuak, bideak, etab. Iruñeko erregeek Gipuzkoako txoko honetan, -Urumea eta Bidasoa ibaien arteko itsasertzean hain zuzen-, ikusi zituzten Nafarroako merkataritza garatzeko baldintza hoberenak, nolabait Gaskonia, Gaztela eta Nafarroaren arteko giltzarria bihurturik.

Nafarroa ordurako feudalizaturik bazegoen ere, bai gizarte egituraketan baita oinarri ekonomikoetan ere, Gipuzkoako egoera zeharo ezberdina zen. X. eta XI. mendeetan abelkuntza zen nagusi gure lurretan. Abere taldeek larrez aldatzen zuten urtean zehar eta, beraz, azpiegiturak abereen jan beharrari erantzuteko egokituak zeuden, hau da, bideak eta bizitokiak mendi lepo eta gailurretan kokaturik zeuden, itsas ertzeari eta ibai zuloei bizkarra emanez. Beste aldetik, pertsonen arteko harremanak familia zabal baten barruan gauzatzen ziren, familiako buruzagiaren esanetara makurturik, eta familiaren geroarekin estuki loturik. Lurraren jabetza eta aprobetxamendua ere kolektiboa zen neurri handi batean eta, ondorioz, lursailak mugatzea ez zen beharrezkoa. Nafarroako erregeak guzti hau aldatzera etorriko dira. Alabaina, kanpotik eragindako aldaketa hauek, Gipuzkoako biztanle kopuru txikia eta hauen bizi-espazioa handia zela eta, hasiera batez behintzat, badirudi ez zituztela gorabehera handiak sortu jatorrizko biztanle eta ohiturekin. Istiluak geroago etorriko ziren, hirien sorrerarekin eta bakoitzak bere udal mugapea mugarriz zehaztu nahi izan zuenean.

Orain arte esandakoa kontuan hartuz atera dezakegun ondorio nagusia zera da, hots, Iruñeko erregeak Leireri egindako eskeintza -eta konkretuki Altzako hiru toponimo horiek- Gipuzkoako lurraldea zuzenbide erromatarraren arabera mugatzen hasteko erabiliak izan zirela da, gizarte gipuzkoarra ordurarte tradizionala zen ahaide sistimatik poliki-poliki aldendaraziz. Mugatzearen azken xedea aberastasun-iturriak ondo kontrolatzea da, "primicia"-k eta bestelako zergak nork bilduko dituen, hain zuzen. D. Pedro Pachecok, Iruñeko gotzaia, -1540. urtean Donostiako elizak ezagutzera etorri zen eta Altzako San Martzial eliza bisitatu zuena bertan bataiontzia edukitzeko ahalmena eman ziolarik-, 1531. urtean sortu berria zen dominikarren San Telmo komentuari San Sebastian el Antiguo monastegiko propietateak -"cosas anejas o adyacentes"- ematea erabaki zuen. Propietate horiek honela zehazten ditu:

> *"...la cabaña de Yurdita hasta Anaizos; la de Zuartzaiarte hasta Bagozu; (...) con sus censos o tributos y pastos, con los diezmos y primicias y con todas las cosas del todo pertenecientes al mismo monasterio del Antiguo ..."*

Erabaki honen bitartez gotzaia diru iturriak ziurtatzen ari zitzaizkion komentu berriari. dokumentu hauen izaera ekonomikoa argi eta garbi azaltzen digularik.

ALÇA ET SOROETA

"Alça et Soroeta cum suis pertinentias", honela esaten du 1141. urteko dokumentu batek non Gartzia Ramirez Nafarroako erregeak Iruñeko elizari Donostialdean dituen zenbait ondasun ematen dion. Hau da gure herriaren izena aipatzen den lehen aldia. Eta Altzarekin batera, izen propioarekin baina elkarturik, dokumentuak Soroeta ere aipatzen du, gaurregun Martutene izenarekin ezagutzen dena.

Urte batzu pasata, 1178. urtean, Antso Jakituna erregeak -izan ere, 1180. urtean Donostiari bere Forua emango diona- lehen aipaturiko dokumentuan esaten dena berretsi egiten du, baino oraingo honetan idazkera pittin bat aldatua eman ezezik, hitz esanguratsua ere eransten dio, hots: "Alza eta Soroetha cum tota sua pertienentia et cum totas suas pescarias".

Agiri hauetan Altza eta Soroeta elkarrekin agertzea nolabait adierazi nahi diguna zera da, garai hauetan lurralde hau Urumea ibaiaren aldera begira zegoela, alegia. Hau ez da kasualitatea zeren joera honek bat egiten baitu eskualde honetan ematen den euskalkien banaketarekin, hots, Pasaiatik ekialdera goinafarreraz mintzatzen dira -Errenteria, kasu- eta Pasaiatik

mendebaldera gipuzkeraz, Altza honen barne hartzen duelarik, Urumea ibarreko beste biztanleekin batera.

R. Izaguirre-ren ustez, Altza izena ez zegokion, hasiera batez behintzat, lursail zabal bati –bestela, "Altzaga" deituko litzatekelako– eta beraz, leku konkretu eta mugatu baten izena izango zen. Haren esanetan, puntu konkretu honen izena, ondoren, bere inguruko zonara zabaldu zen. Antzeko zeozer gertatu da azken urteotan Intxaurrondo izenarekin zein baserri baten izena izatetik lurralde zabal baten izena izatera pasa den. Bestalde, Altza izenaren etimologiak azterketa aparte bat merezi badu ere ez dugu aukera hau pasatzen utzi nahi Altzako izenak sortzen dizkigun zalantzak eta galderekin aipamen bat egin gabe. Aditu gehienek esaten dutenez, logikoena bestalde, Altza haltza izeneko zuhaitzari dagokio. Alabaina, haltza ibarretako zuhaitza izanik, zer dela-ta gailur baten izena? Badaiteke berezitasun honengatik, hain zuzen, gailurra honi bertakoek izen hori ematea, ezohizkoa delako haltza bat gailurrean haztea. Baina tradizioak esaten duena baztertu nahi izan gabe, badira ere beste hipotesiak gutxienez azterketa bat mereziko luketenak. Bata, "altzo" eta "altzu" hitzekin zerikusirik izatea, zeinek artaldea esan nahi duten. Eta bestetik, aztertu beharreko beste aukera zera da, "altza" eta "galtzara" beraien artean eduki lezaketen zerikusia. Kontuan izan behar dugu Molinao aldean "Galtzabeta" toponimo zaharra daukagula eta esanahiari begiratzen badiogu - Galtza(da)+be+eta- zer pentsa behintzat ematen digu. Hala ere, eta lehen esan bezala, guzti honek hizkuntz azterketa sakon bat mereziko luke.

Soroeta toponimoa -geroago dokumentuetan Sarroeta, Sorroeta, Sarrauta, Zarraota, Sarrueta izenekin azalduko zaiguna-, esanguratsua da gure ustez zeren bere esanahiaren arabera, - Soroeta soro asko dagoen lekua da, soroa ereintzeko prest dagoen lursaila delarik-, inguru hauek nekazaritzarekin erabat lotuta agertzen zaizkigun. Artzantzak behar dituen "cubilare"-en artean nekazaritzarekin loturiko leku izenak azaltzea berrikuntza nabarmena da dudarik gabe, itzulbiderik gabeko aldaketen adierazgarri.

Kontuan hartzekoa da ere 1178. urteko dokumentuan aipatzen den "Pescarias" hitza, beste iharduera ekonomikoaren berri ematen baitigu, izan ere arrantzarena. Arrantzua Urumea ibaian egiten zen eta, ziurrenik, garai hartako arrantzaleek nasa -alde batetik inbutu antzera irekia den arrantza tresna- erabiltzen zuten arrainak harrapatzeko. Amuarrainak, aingirak, barboak eta izokinak ziren ibai eta erreketan harrapatzen zituzten arrainak. Erdi Aroan arrain asko jaten zen, beste arrazoien artean, elizak urtean 140 egunetan gutxi gorabehera haragia jatea debekatzen zuelako eta, ondorioz, jendeari ugaria zen arraina jatea besterik ez zitzaion geratzen.

Arrantza ezezik, eta dokumentuak besterik ez badu esaten ere, pentsa daiteke Soroetan portutxoren bat egon zitekeela. Momentu honetan ez bazegoen porturik, handik pixkatera sortuko zen. Lurgaineko garraioak hain neketsu eta aldrebesak zirenez ibaiak komunikabide azkarrak eta erosoenak bilakatu ziren. Bestalde eta hurrengo mendeetan batez ere, Urumea ibaiak Goizueta, Arano eta Hernaniko burniolak itsasoko portuekin lotzen zituen eta Soroetako txokoan hain zuzen, Altzan zehar, Pasaiako portura joateko biderik zuzenena abiatzen zen.

Iharduera ekonomiko hauek jendea ibai ertzetara erakarri zuten, eta hau ere gauza berria izan zen garai hauetan, ez baitugu ahaztu behar garai hartako biztanleek, artzantza zela-ta, mendi goikaldea bilatzen zutela bizilekutzat, ibar hondoa sahiestuz. Joera hau, - mendi goikaldetik ibar hondoetara jeistearena-, hemendik aurrera nagusituko da eta honen ondoriorik adierazgarriena hiribilduen sorrera izango da. Gipuzkoan aurreneko hiria Donostia izango da,

1180. urtean lortuko baitu bere Forua, eta bere atzetik Hondarribia, Motriku, etab., itsas ertzean hasiera batez eta barnekaldean ondoren, kasu guztietan ibaien alboan.

Orain arte zehaztu dugun prozesu akulturizatzaile honetan protagonista bat izan dugu nabarmen, Nafarroako erregeak hain zuzen. Alabaina, bere helburu politiko eta ekonomikoak ezin izango zituzten aurrera eraman eta burutu bertako biztanleekin kontatu izan balute soilik, oso jende eskasak okupatzen zuelako lurraldea eta, gainera, bere ohiturak eta gizarte antolaketa erregeen beharretatik oso urrun zeudelako. Beraz, erregeen borondateaz gain, proiektu honek beste protagonista bat ere behar zuen: gaskoiak.

LA ARTIGA DE ALZA

Euskal Herriko iparraldean, IX. mendearen erdialdetik XI. mendera arte, Gaskonia izeneko Dukerri bat izan zen. Bere lurraldea oso zabala zen, iparraldetik Bordeleraino eta ekialdetik Andorrako inguruetaraino iristen zen. Gaskonia hitza Baskonia izenatik dator eta, jatorrian, hegoaldeko baskoiekin oso lotura handia omen zeukaten baina, ibilbide historiko ezberdinen ondorioz, bakoitzak bere kultura ezberdina osatu zuen. Bata hegoaldekoa, euskalduna, euskaraz mintzatzen zena, eta bestea gaskoia, erromantzeraz mintzatzen zena, gaskoieraz alegia.

Nafarroako erresuma XI. mendean, musulmandarren kontrako lehian aurrera egiten zuen neurrian, bi beharren aurrean aurkitu zen: batetik, irabazitako lurrak okupatzeko hiri berriak sortu behar zituen; eta bestetik, ekonomia garatzeko merkataritzarentzako bide azpiegiturak sendotzea ezinbestekoa zuen. Xede hauek betetzeko ez zen nahikoa Nafarroako biztanleria, ez kantitatean ezta bere kualidadeetan ere, zeren nafartarrak gutxi baitziren eta, halaber, bere pentsakera ez zegoen merkataritzarako prestaturik. Beraz, Nafarroako erregeak kanpoko jendeari ateak zabaldu beharrean aurkitu ziren eta, gainera, erreztasunak eman zizkieten ere bertara bizitzera etortzeko. Lacarra historialariak dionez, 1180. eta 1190. urteen artean eraberritze prozesu honen laugarren fasea jazo zen, Iruñea eta Lizarrako frankoen auzoen ondoan auzo berriak sortuz eta Donostian nukleo berri bat bultzatuz, mugimendu horren barruan baina erabat ezberdina. Nafarrora berriro ere frankoak etorri baziren, Gipuzkoako txoko honetara gaskoiak izan ziren erakarritakoak.

Honen ondoriorik adierazgarriena Donostiako Forua izan zen, 1180. urtean Nafarroako erregea zen Antso Jakitunak emana. Donostia Gipuzkoan sortutako lehen hiribildua izan zen eta Foruan jasotzen den legez, merkatari gaskoien beharrei erantzuteko pentsatua izan zen. Honek iraultza soziala eta ekonomikoa suposatuko zuen gure lurraldean.

Nafarroako erregeak izan ezik gaskoiek ere bazeukaten bere lurraldetik alde egiteko motiborik. Bizpahiru hipotesia izan dira arazo hau argitzen saiatu direnak baina sinisgarritasun handiena lortu duena Banus-ena izan da. Berak dioenez, gaskoien emigrazioa Aturri ibaiaren krisiarekin loturik dago. Baionan bi ibai elkartzen dira, bat Aturri ibaia da, Gaskoniatik datorrena, eta bestea, Errobi ibaia, Nafarroa Behereatik datorrena. Azken ibai honek Baiona eta Nafarroako erresuma lotzen zituen eta, beraz, Baiona Nafarroako portua bihurtzen zuen. Baionako merkataritza gaskoien eskuetan zegoen eta, Nafarroak beste porturik ez zeukanez, hauek bideratzen zituzten Nafarroako itsasozko salerosketa neurri handi batean behinik behin. Baina XII. mendearen hasieran, Landak eskualde hareatsuaren hurbiltasuna eta itsasoaren korronteen eragina zirela-ta, hondarrek Aturri ibaiaren ahoa itxi zuten eta itsasontzien trafikoa oztopatu. Honek behartu egin zituen Baionako gaskoiak beste portu berri bat bilatzera eta, azkenik, Urgull mendiaren magalean aurkituko zuten beraien beharretara ederki asko egokituko

zen portu naturala. Gainera, Donostiaren kokapena oso ona zen, bai Urumea ibaiaren bitartez baita Oria eta Araxes ibaien bitartez ere, guztiak nafar lurraldetan, Nafarroarekiko komunikazioak ziurtaturik zeuden.

Gaskoiekin batera bere ohiturak eta hizkuntza etorri ziren. Gaskoiera oso erabilia izan zen eta bizirik iraundu du gure mendera arte. 1918. urtean hil zen Luis Trezet aguazila, eta hurrengo urtean bere arreba zen Eudivigis Trezet, haiek izan ziren Pasai Donibanen gaskoieraz mintzatu ziren bi azken sanjuandarrak. Etorri eta aurreneko berrehun urteetan gutxi gorabehera, gaskoien nagusitasun politiko eta ekonomikoarekin bat, gaskoieraren presentzia oso handia izan zen udal-ordenantzetan zein dokumentu pribatuetan, hala nola testamentuak, kontratoak, eta abar. Gaskoieraren presentziaz jabetzeko oso adierazgarria da ikustea nola Hondarribian 1611. urteko sorginen kontrako prozesu batean nola Ixabel Gartziak, 13 urteko neskatila, zera aitortzen zuen:

> *"...el diablo en gascon llamaba veni aca los de San Sebastian, los del Pasaje, y luego en vascuence llamaba las de Irún, las de Hendaya, y les hablaba algunas cosas..."*

Gamón errenteriarrak, XVIII. mendean, aipatzen du nola bere herrian "kaskoiak" eta "landerrak" izengoitiak erabiltzen zituzten donostiarrentzako. "Kaskoi" izengoitik dator hain zuzen "donostiar kaskarinak" esaera ezaguna; eta "landerrak" izengoitia izan ere Molinaoko etxe zahar baten izena dugu, Landerro edo Landarro, alegia. Halaber, Landarbaso toponimoa esanahi honekin loturik dago, ez baitugu ahaztu behar Landarbaso mendia gaurregun ere Donostiako mugapean aurkitzen dela.

Gaskoiera okzitaniera da (Langue d'Oc), Frantziako hegoaldean Atlantikotik Mediterraneoraino zabaltzen den hizkunta, gaur egun ahul baino bizirik dirauena. Nolako mintzaira zen pixka bat ikusteko hemen kopiatuko dugu 1304. urtean Donostiako Johan Yaynnes d'Ayçaga Iruñeko katedralari jauregi bat eskeintzeko gaskoieraz egin zuen dokumentua.

> *"...ey dat e dau a la pitançerie de la dite glisie de Senta Maria de Pamplona lo palaçi que es a part d'en Beile que io aui en la viele de Sent Sebastian en la rue d'en Bertran e la plaça erm qui es tient ab lo dit palaçi au costat..." (R. Cierbide: A propósito de un texto gascón de San Sebastián de 1304)*

Badirudi XVIII. menderako gaskoiera desagertua zela Donostian, eta Altza ordurako erabat euskaldundua zegoela. Alabaina, Altzan gaskoieraren presentziak baserri eta etxe izenetan iraundu du eta errez antzeman daiteke gaurregun ere. Esan bezala, gaskoiak etorri zirenean, Donostia eta Hondarribiako inguruetan bildu ziren batez ere, -Getarian, Villagranan (Zumaia) eta Villabonan izan ziren ere baina neurri txikiago batean- baina toponimo dentsitate handiena, Banus historialariak dioenez, beraiek deitu zioten "las Artigas de Alza" inguruan aurkituko dugu. Banus-ek izen gaskoiez edota izen gaskoia eta atzizki euskaldunez osaturik dauden baserri eta etxe zerrenda bat ematen digu. Zerrenda horretan Altzako hauek biltzen ditu (berak erabilitako idazkeran emango ditugu): Darieta, Casares, Casanao, Chapiñ-ene, Estibaus, Martillun, Sius, Mirasun, Miranda, Mercader, Pelegriñ-ene, Marrus, Garbera, Garros-tegui, Hua, Esparchu, Arroas, Martiotegui, Amo-eder, Alano, Irasmo-bea, Irasmo- goya, Ayenas, Molinao, Albernat, Varona, Papin, Acular, Castillun, Miramar, Alamoria, Galant-enea, Chipres, Churdiñ-ene, Gomiz-tegui, Ernavido, Laboras, Moneda, Herrera, Herreria, Parada, Alapunta, Peli-zar, Garro, Sius-tegui.

Artiga izena maiz erabilia izan zen Erdi Aroan Altza izendatzeko, batzutan bera bakarrik eta bestetan "Artiga de Alza" izena osatuz. 1409. urteko dokumentu batean honela esaten du:

> *"...e dixo mas el dicho Iohan d'Artola (Astigarragako bizilaguna) anandiendo al juramento que fecho avia que a el se le acaesçioen uno con los de Artiga, aldea de San Sebastian, faser una passada sobre rason de partimiento de terminos..." (Crespo; Archivo Municipal de Rentería)*

Artiga hitza gaskoia da, euskaraz lurberri edo luberri bezala ezagutzen duguna. Luberria basoa edota larreari irabazitako lurra da, bertatik kendu diren belarrak eta sustraiak erre ondoren eta goldatu eta gero, ereiteko eta nekazaritzarako prestaturiko lurra. Artiga izena Ibaeta eta Irungo zenbait inguru izendatzeko erabilia izan da ere eta kasu guztietan gaskoiekin erlazionaturik. Gure herria honela izendatzea esanguratsua da esaten baitigu hemengo lurrak zertan eta zertarako erabiliak ziren. Behin eta berriro aipatu dugu gaskoien merkatari izaera eta hau zen dudarik gabe haien ezaugarririk nagusiena baina ez bakarra, gaskoiena ez baitzen izan merkatari kolonizazio bat bakarrik, baizik eta nekazari kolonizazio bat ere. Altza Artiga deitzeak esan nahi digu, gure ustez, zein funtzio edo eginkizun betetzen zuen Altzak momentu horretan, Donostiako aldiria (alfoz, banlieu) izatearena hain zuzen. Donostia merkataritzan murgildurik, inguruko auzo eta herrixkak (aldiria) behar zituen hiria elikagaiez hornitzeko.

Artiga izenak gaskoien eraginaren gainbeherarekin batera desagertzera jo zuen eta 1599. urterako jada ez zen dokumentuetan behintzat erabiltzen eta gure herria "Alza" izenarekin azalduko da hemendik aurrera dokumentu guztietan.

Geu, geure aldetik, gure inguruko toponimoen aztarnak egungo Gaskonian barne bilatzen saiatu gara (ikus 2. irudia). Honetarako, Michelin 1/200.000 mapa hartu dugu, Akitaniari dagokion 234. orria hain zuzen, eta bertan azaltzen diren toponimo guztiak arakatu ditugu. Denetara 39 toponimo aurkitu ditugu nolabait guk hemen ezagutzen ditugun toponimoekin antza daukatenak, hots: Amueder, baserria; Argel, baserria; Artiga, herria; Arzak, baserria; Etxeberri-Serres, baserria; Garbera, baserria; Garros, baserria; Herrera, baserria; Kasares, baserria; Kastillun, baserria; Mirall, Ulia mendia; Miramon, baserria; Miranda, baserria; Mons, baserria; Morlans, baserria; San Martzial, parrokia. Toponimo gehienak Aturri ibaia eta Pabeko ibaiaren artean aurkitzen dira, behar bada Donostialdera etorritako gaskoien jatorriaren adierazgarri.

Toponimo guzti hauek azterketa sakonago eta zabalago bat mereziko lukete baina oraingoz horietako bat hartuko dugu aztergai: San Martzial. Gaskoniako iparraldean bi aldiz aurkitu dugu izen hau: St. Martial, eta St. Martial d'Artenset. Altzan, bestalde, ia sei mendetan herriko parrokia bakarra izan denaren zaindaria dugu.

Altzako parrokia sortzeko momentuan, 1390. urtean, zergatik aukeratu zuten San Martzial zaindaritzat? Felix Elejaldek San Martzial parrokiaren VI. mendeurrena zela-ta idatzi zuen "Altza San Martzial" liburuan galdera bera egiten du, eta erantzun ere. Haren ustez erantzuna erromesengan bilatu behar da: "pudo muy bien haber sido traído en los labios y en el corazón de los peregrinos compostelanos".

Denok jakin badakigu gure bideetan zehar erromesak pasatzen zirela Santiagorako bidean. Santiago-Bidea, ordea, ez zen bide bakar bat anitza baizik, eta honengatik, erromes bakoitzak bere bidea egiten zuen gustokoen zituen santutegiak bisitatuz eta baita, jakina, pasabide errezenak eta seguruenak ere bilatuz. Bestalde, San Martzial eta San Sebastian antza handia

daukate beraien artean biak baitziren lehen garaietako kristauak eta, aldi berean, izurriaren aurrean babesle, artekari eta laguntzailea. XIV. mendean izurri beltzak ikaragarri zigortu zuen Europa osoa -1348. urtean batez ere-, eta beraz, San Martzial modan zegoen santua izatea litekeen gauza da eta, erromesen bitartez, Altzara zaindari bezala heltzea.

Hala ere, guk ez dugu uste arrazoi hauek nahikoak diren planteaturiko galderari erantzuteko. Felix Elejaldek berak ere zalantzak ditu eta azaltzen digu nola Gipuzkoan San Martziali eskeinitako ermitak oso gutxi diren eta, gainera, Altzarekin lotura gabekoak (ikus 3. irudia). Gipuzkoan lau dira San Martzial izenarekin duaden ermitak: Irun, Bergara, Antzuola eta Soraluze. Irungo San Martzial ermita ospetsuak, ordea, ez dauka zerikusirik Santiago-Bidearekin ezta Altzakoarekin ere 1552. urtean frantsesen aurka San Martzial egunean lortutako garaipenaren omenez eraiki baitzen, eta beraz, gure ikusmiratik baztertu behar dugu. Beste hirurak Deba bailaran aurkitzen dira, bata bestearen ondoan hiru herri ezberdinetan egon arren. Hirurak ermita xumeak dira eta ez daukate XVI. mendea baino lehenagoko aipamenik. Beraz, hauen jatorria ere, seguruena, zerikusi gutxi izango dute Altzakoarekin.

Non, bada, bilatu beharko dugu Altzako San Martzial zaindaritzapearen arrazoia? Gure ustez, erantzuna gaskoien tradizioan bilatu behar dugu. San Martzial Limogesko aurreneko gotzaia izan zen eta Akitanian kristau fedea eta ebanjelioa aldarrikatu zuena. Beraz, gaskoi kristauentzat, akitaniarrak izaki, San Martzial santu maitagarria zen eta tenplu berri baten sorkuntzan kontuan izatea ez zaigu batere arraroa iruditzen, alderantziz, giza-talde baten nortasuna baieztatzeko balio zezakeen eta seguraski honela erabilia izan zen. Berrikusten baditugu parrokia sortzeko idatzi ziren dokumentuak eta bertan azaltzen zaizkigun abizenak berehala antzeman dezakegu nola 1390. urtean oraindik gaskoi presentzia oso nabarmena zen. Hauek dira, hain zuzen, dokumentuetan azaltzen diren "moradores de la Artiga de Alza": Berra, La Lana, Casares, Castañeda, Durango, Heraso, Casanao, Luzuriaga, Baro, Sius, Salamon, Mercader, Damas, Corbuera.

KONKLUSIO GISA

Gipuzkoa XI. eta XV. mendeen artean artzantzan oinarritutako gizarte eta ekonomia batetik nekazaritzan eta merkataritzan oinarritutako gizarte eta ekonomia batera pasatu zen. Espazioa okupatzeko moduan eta inguruarekiko harremanetan ere erabateko aldaketak jazoko dira. Lurraldean mugarriak ezarriko dira han eta hemen, jauntxoen artean -elizakoak zein zibilak-, bai hiribilduen artean, baita jarduera ekonomiko ezberdinen artean ere gatazkak eta istiluak sortaraziz. Interesak asko eta handiak dira, batez ere diru-iturriekin zerikusirik dauzkatenak, eta honengatik dokumentuak bai faltsuak baita egitazkoak ere erruz argitaratu ziren jabetza eta ustiapen eskubideak zehazteko. Jaunak, -zibilak zein elizakoak, partikularrak zein kolektiboak-, behin eta berriro ahaleginduko dira beraien lurraldeak eta ustiapen eskubideak zehazten eta, ahal baldin bazen, zabaltzen. Altza Erdi Aroko dokumentuetan azaldu denean honelako kasuetan izan da. Nafarroako erregeak, Leireko monastegia, Iruñeko katedrala, San Sebastian El Antiguo monastegia, Santa Maria eta San Bizente hiribilduaren parrokiak, Villanueva de Oyarçun hiria, eta Murguiako Jauna izango dira Altzako espazioa definituko dutenak. Altza Erdi Aroan mugan dago eta muga da: barduliar eta baskoien artean, lehen; Iruñeko eta Baionako apezpikutegien artean gero; Oiartzun eta Urumea bailaren artean azkenik. Honek eman dio izan ere protagonismoa Gipuzkoako dokumentu zaharrenetan.

Gaskoien kolonizazioa da, bestalde, Altzako Erdi Aroaren beste ezaugarri nagusietako bat. Altzako kasuan argi demostratua geratzen da nola gaskoien kolonizazioa ez zen merkatal

kolonizazioa soilik izan. Gaskoiek ekarri zuten nekazaritza Altza eta bere inguruetara, Gipuzkoan berezitasun handia ematen diolarik. Haiek sortutako aberastasuna erakargarria izango da askorentzako. Adierazgarria da nola Baionako apezpikutegia 1105. urtean saiatu zen bere elizbarrutia Hernani eta Donostiaraino zabaltzen seguruenik gaskoien jatorria argudiotzat erabiliz eta Baionako portuaren gainbeheraren eraginez izandako diru murrizketa konpentsatu nahian.

Izenez izen Altzako Erdi Aroari eman diogun errepasoa ez da hemen bukatzen. Gai eta arazo asko gelditu dira argitu eta sakondu beharrean edota ez dira ezta aipatu ere egin. Beste baterako geratu beharko dira. Hala ere, gure ustez, idatzi honetan aipatutakoa nahikoa da Altzako Erdi Aroak duen garrantziaz eta erakargarritasunaz jabetzeko.

1. irudia:
Antso Nagusiak Leireko Monastegiari 1014. urtean egindako Eskeintza. R. Izaguirre, "Historia y Toponimia donostiarras.

ALBIZUNGO eta ILLURGITA zein puntutan dauzkagun dokumentatuak erantsi diogu ANAIZOZ, ordea, oraingoz ez dakigu zehazki non kokatu.



2. irudia:
GASKONIA. Altza eta Donostiarekin loturiko toponimoak:

Serres, auzunea;
Etang de Garros, lakua;
Castillon, auzunea;
4. Herrere, auzunea;
5. Argelès-Gazost, herria;
6. Serres- Morlaas, auzunea;
Morlass, herria;
8. Serres-Castet, auzunea;
9. Castillon, auzunea;
10. Argeles, etxea;
11. Amou, herria;
12. Argelos, auzunea;
13. Arzacq-Arraziguet, auzunea;
14. Miramon- Sensac, auzunea;
15. Lartigue, etxea;
16. Cazères-s-l'Adour, auzunea;
17. Artigau, etxea;
18. Lartigue, etxea;
19. Lartigue, etxea;
20. Gourbera, auzunea;
21. Castillon, etxea;
22. Garrosse, auzunea;
23. Castillon, etxea;
24. Garbay, etxea;
25. Castillo- Debats, auzunea;
26. Mirande, herria;
27. Mons, etxea;
28. Artigues, auzunea;
29. Le Miraill, etxea;
30. Lartigue, auzunea;
31. Artigues, etxea;
32. Miramont-de-Guyenne, herria;
33. St. Martial, etxea;
34. St. Martial D'Artenset, herria;
35. Castillon- de-Castets, auzunea;
36. Signal du Miraill, mendixka;
37, Castillon la Bataille, herria;
38. Les Artigues, auzunea;
39. Artiguevieille, etxea.

3. irudia:
San Martzial zaindaritzapea Gipuzkoan.

1. Altzako San Martzial parrokia;
2. Irungo San Martzial baseliza;
3. Soraluzeko San Emeterio eta Zeledonio baseliza, non San Martzial egunean erromeria ospatzen den;
4. Bergarako San Martzial baseliza;
5. Antzuolako San Martzial baseliza.



BIBLIOGRAFIA

AA.BB.: *Altza-Hautsa Kenduz*. Altzako Historia Mintegia. Altza, 1988.

AGUD QUEROL, Manuel: *Areas Toponímicas en el País Vasco.* Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" VII; Gipuzkoako Foru Aldundia; Donostia, 1973; 38-55 or.

ARIZAGA BOLOMBURU, Beatriz: *Las villas Guipuzcoanas que reciben el Fuero de San Sebastián: Modos de Vida de sus Habitantes.* Congreso "El Fuero de San Sebastián y su época". Eusko Ikaskuntza; Donostia, 1981; 113-134 or.

BANUS Y AGUIRRE, José Luis: *"¿Por qué vinieron los gascones?".* Glosas Euskaras. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Donostia, 1975; 127-133 or.

BANUS Y AGUIRRE, J.L.: *Gascones en el costalde de Guipúzcoa.* Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián; 25. Zbk; 561-584 or.

BARANDIARAN, Joseba Presentación: *Gaskoiak Lezon eta Oiarsoko Bailaran.* "Lezo 6 aldizkaria. Lezo, 1991; 7-13 or.

BARRENA OSORO, Elena: *La Formación Histórica de Guipúzcoa.* Cuadernos Universitarios 5. Zbk; E.U.T.G.-Mundaiz. Donostia, 1989

BARRENA OSORO, Elena: *Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa* (1375-1463) Documentos. Eusko-Ikaskuntza; Donostia, 1982; 44. eta 161. or.

CIERBIDE, Ricardo: *A propósito de un texto gascón de San Sebastián de 1304.* Julio Caro Barojari Omenaldia. Eusko Ikaskuntza; Donostia ,1986; 861-873 or.

CIERBIDE MARTINENA, Ricardo: *Estado actual de los estudios de la Lengua Occitana en Navarra. Línea de investigación.* Congreso General de Historia de Navarra. Iruñea, 1986; 365-376 or.

CRESPO RICO, M.A. eta besteak: *Fuentes Documentales Medievales del País Vasco: Colección Documental del Archivo Municipal de Rentería.* Tomo I. Eusko Ikaskuntza; Donostia, 1991; 142, 143, 154, 155, 180 eta 181. or.

ELEJALDE ALDAMA, Félix: *Parroquia Altza San Martzial: Centenario VI. Mendeurrena 1390-1990.* Kutxa, Donostia, 1990.

ELEJALDE, F. eta ERENCHUN, J.: *Alza y Astigarraga.* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. Donostia, 1974.

FORTUN PEREZ DE CIRIZA, Luis Javier: *San Sebastián en el dominio del Monasterio de Leire (siglo XI - 1235).* Congreso "El Fuero de San Sebastián y su época". Eusko Ikaskuntza; Donostia, 1981; 451-467 or.

GARCIA DE CORTAZAR, José Angel: *La Sociedad Guipuzcoana antes del Fuero de San Sebastián.* Congreso "El Fuero de San Sebastián y su época". Eusko Ikaskuntza; Donostia, 1981; 89-111 or.

IZAGUIRRE, Ricardo de: *Historia y Toponimia donostiarras: El primer grupo de documentos referentes a San Sebastián de Hernani.* Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ibarra. B.R.S.V.A.P. 3. Zbk; Donostia, 1951; 335-406 or.

IZAGUIRRE, Ricardo de: *Notas a la Donación de Leire: Contribución al estudio de los orígenes de San Sebastián.* Euskalerriaren alde; Donostia, 1931.

LASA, José J.: *Las Luchas en torno a los Seles y caserío de Albitxuri.* Homenaje a don José Miguel de Barandiarán, Tomo I. Diputación de Vizcaya; Bilbao, 1964; 158-187 or.

LOIDI BIZCARRONDO, José Antonio: *Gaskoi toponimia Irunen.* 'Plazara" aldizkaria; 2. Zbk; Irun, 1985.

MARTINEZ DIEZ, Gonzalo: *Guipúzcoa en los Albores de su Historia (Siglos X-XII).* Gipuzkoako Foru Aldundia; Donostia, 1975.

MICHELENA, Luis: *Apellidos Vascos.* Editorial Txertoa. Donostia, 1989.

MUGICA ZUFIRIA, Serapio: *Los Gascones en Guipúzcoa.* Estudios sobre San Sebastián Grupo Dr. Camino; Donostia, 1980; 65-97 or.

MUGICA ZUFIRIA, Serapio: *El Obispado de Bayona con relación a los pueblos de Guipúzcoa adscritos a dicha diócesis.* Revue internationale de Etudes Basques; tomo IV. Eusko Ikaskuntza, 1914; 185-229 or.

MURUGARREN, Luis: *San Sebastián Donostia.* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. Donostia 1978.

ORELLA UNZUE, José Luis, eta besteak: *Guipúzcoa y el Reino de Navarra en los siglos XIII-XV: Relaciones, intereses y delimitación de la frontera.* Cuadernos Universitarios Nº 4, E.U.T.G.-Mundaiz. Donostia, 1987.

OSES, Cristina: *La Vertiente "lingüística románica" del País Vasco.* In: El Pueblo Vasco en el Renacimiento (1491-1521). Bilbao, 1994.

ROLDAN GUAL, José M.ª: *La cuenca baja del Urumea en los siglos XI y XII: un espacio geohistórico en mutación.* Lurralde, 8. Zbk.; Donostia, 1985; 141-172 or.

SILVAN, Leandro: *El Término Municipal de San Sebastián: su evolución histórica.* Grupo Doctor Camino de Historia Donostiarra. Donostia, 1971.